

Errenteriako Berdintasun Kontseilua sortu da Emakume eta gizonen aukera-berdintasunaren alde elkarlanean jarduteko gunea

Se ha creado el Consejo de Igualdad de Errenteria Un espacio para el trabajo en común a favor de la igualdad de oportunidades

Maite Peña

Berdintasun Kontseiluko lehendakaria
Presidenta del Consejo de Igualdad

Aurretik, Gipuzkoan, beste udal askok landu eta onartu zituzten berdintasun-planak; hor daude, besteak beste, Donostia, Irun, Eibar, Arrasate, Hernani..., eta horien ondoren eman zen ontzat Errenteriakoa, duela urtebete. Horregatik, zoriontzeaz gain, urteurrenaren aitzakian, zer den azaldu nahiko genuke, labur bada ere.

Berdintasun-planak emakume eta gizonen aukera-berdintasuna herriko eta herritarren bizitzako eremu eta txoko guztietara zabaltzeko tresnak dira, etorkizunean garatu nahi diren politikaren oinarriak jasotzen dituztenak.

Errenteriako Udalaren Planean, zehazki, datozen 4 urteetan aukera-berdintasunaren eremuan lortu nahi ditugun helburuak jaso ditugu, baita helburu horiek lortzeko ekintzak ere.

Planak, labur esateko, **lau helburu nagusi** biltzen ditu:

- **Udalari dagokio**, udalerrri-mailako erakunde nagusia den neurrian, **aukera-berdintasuna sustatzea**, eta horretarako baliabideak jartzea, bai dirua, baita pertsonak ere. Baina garrantzitsua da gai honekiko ardura partekatzea, aukera-berdintasunaren gaia ez izatea bakarrik pertsona edo erakunde batzuen (adibidez, Udaleko Berdintasun Arloarena, berdintasuneko zinegotziarena edo berdintasun-teknikariarena), baizik eta Udaleko arlo guztiek lan egitea aukera-berdintasuna bermatzeko. Horrek esan nahi

Udaleko ordezkari politiko eta langile guztiek (izan Kulturakoak, Kiroletakoak edo Hirigintzakoak), edozein politika ezarri edo programa publiko garatzeko garaian, oso presente eduki behar dutela ea emakumezkoen beharrak eta interesak kontuan hartzen diren, edota gauzak ohi bezala eta ohiko irizpideekin egiteak emakumeen aukera-berdintasunari kalterik eragiten ote dion. Kontua ez da emakumezkoek aukera gehiago izatea, baizik eta baldintza berdinetan jokatzeko eta aukera berdinak edukitzea.

- **Lana eta bizitza pertsonala uztartzea** ez da erraza. Guztiok gara modu batera edo bestera egunerokotasunaren ekilibrista, eta beraz, lana eta bizitza pertsonala bateratzeko neurriek guztion bizi-kalitatea hobetzen dute. Ezinbestekoa da, beraz, lana eta bizitza pertsonala uztartzeko aukerak bermatzea, behar diren neurriak hartuta eta behar diren baliabideak martxan jarrita. Horrez gain, behar-beharrezkoa da alor honetan gizonzkoek ere hainbat lanetan parte hartu eta ardurak hartzea, erantzunkidetasuna sustatzea, alegia. Eta zer esan nahi du horrek? Ba, emakumezkoek lana eta bizitza pertsonala orekatuta uztartzeko, bateragarritasun-neurriez gain, ezinbestekoa dela gizonzkoen parte-hartze aktiboa eta aukera-berdintasunaren aldeko gizonzkoen konpromisoa. Horrek berarekin



dakar, beraz, gizonetzkoek paper-aktiboa jokatzeari zaintza-leretan, etxeko-leretan eta, oro har, familia-arduretan, eta eremu zabal horri denbora eskaintzea, noski.

- Estrategikoa da, halaber, **emakumeen parte-hartzea sustatzea** bizitzaren eremu guztietan. Denbora luzez ohitu gara eremu publikoan (kalean, politikagintzan, jendaurrean, elkartegintzan...) gizonetzkoak ikusten eta eremu pribatuan (etxean, familian...) emakumezkoak ikusten. Azken urteotan, ordea, zorionez gauzak asko aldatu dira eta baditugu gure herrian bertan eremu publikoan emakume erreferentzialak: emakume zinegotziak, elkarretarako lehendakariak, kirolari ezagunak, enpresa- eta negozio-arduradunak...; baina oraindik ere emakumeen parte-hartze soziala, politikoa eta ekonomikoa sustatu beharra dago, edo emakumeek horietan parte har dezagun erraztea, bai, behintzat.
- **Emakumeen aurkako indarkeria** da, zalantzarik gabe, berdintasunik ezaren adierazgarri gogor eta mingarriena. Horregatik, lehentasunezko gaia da emakumeekiko bortxazko jarrerak amaitzea. Gure herrian bertan ezagutu ditugu erasoak, baita hilketak ere, eta, beraz, presazkoa eta erabakigarria da horrelakoak gehiago gerta ez daitezkeen neurriak hartzea, berdintasunaren alde urratsak egin nahi baditugu.

Helburu horiek lortzeko, **hainbat ekintza** jaso ditugu Planean, **nolako aldaketak eta non eragin** nahi dugun adierazten digutenak.

- **Udalean** eragin nahi dugu, Udalean hartzen diren erabakietan emakumeen beharrak eta interesak aintzat har daitezkeen eta aukerak sortzeko zinegotzi-leretan eta ardura-postuetan emakume gehiago egon daitezkeen.
- Eragin nahi dugu **lan munduan**, besteak beste, soldatapeko lanetarako aukera gehiago izan dezaten emakumeek, etxeko eta familiaren zaintzako lanak gizarte-balio handiagoa izateko eta emakumeek era guztietako lanpostuetara sarbidea izateko.
- Eragin nahi dugu **kirolean eta kulturaren**, emakumeen gustuko jarduerak gehiago antola daitezkeen, emakumeen gustu eta nahietara egokituak azpiegiturak egin daitezkeen, kultur eta kirol-elkarretan emakume gehiagok parte har dezaten, herri-mailako elkartegintzan emakumezkoak presenteago egon daitezkeen, etab.
- **Hirigintzan, garraio publikoan eta ingurumenean** eragin nahi dugu, oinezkoentzat egokituago egongo den herria izan dezagun, garraio-publikoaren sare hobearrekin, toki ilun eta pasabide ezkutatuak baztertuta, aisialdirako eta jolaserako gune gehiagorekin...; finean, emakumeen bizi-ohiturekin bat datorren herria izan dezagun.
- Gure herrian bizi diren **iritzietan eta jarretan** eragin nahi dugu, aukera-berdintasunaren garrantziaz jabe daitezkeen, gure seme-alabak berdintasunean hezi ditzagun, modu erantzunkidean joka dezagun, inor bazter ez dezagun, etab.

Horiek adibideak baino ez dira, arlo askotarikoa; izan ere, Berdintasun Planak gure bizitzako esparru guztietan presente egon nahi baitu. Baina hori lortzea ez da lan makala. Batetik, herriko jende, txoko eta sektore guztietara iritsi nahi dugulako, eta, bestetik, errenteriarren iritzietan, jarreretan eta jokabideetan eragin nahi dugulako.

Lan horiek guztiak egiteko eta garatzeko, beraz, **hainbat lan-gune** sortu ditugu:

Udala da udalerrri-mailako erakunde garrantzitsuena, eta Udalari dagokio, beraz, beste erakunde batzuekin elkarlanean, Plana aurrera eramatea.

Maila teknikoan, adibidez, Berdintasun Planak aurrera egiteko udaleko langile guztien bultzada eta lankidetzara behar dugu eta horretarako **Berdintasuneko Batzorde Teknikoa** sortu dugu Udalean. Batzorde horretan sailtako ordezkariak daude eta bertan bermatzen da informazio elkartrukea eta Planeko ekintzen koordinazioa.

Maila politikoan ere Berdintasun Planak badu eztabaidarako eta lanketarako gunea: **Errenteriako Udaleko Gizarte Zerbitzuen Batzordea**. Aurrerago Berdintasunak berezko Batzordea izatea aurreikusten badugu ere, hura sortu bitartean Gizarte Zerbitzuen Batzordearen bidez ari gara. Bertan Udalean ordezkariak duten alderdi guztiak daude ordezkariak eta bertan lantzen

dira, Planarekin zerikusia daukaten erabaki politiko garrantzitsuak.

Berdintasun Plana udal-plana da beraz, baina Berdintasun Plana lantzen zeresan handia izan dute Errenteriako herritarrek, oro har, eta, zehazki, **Errenteriako hainbat talde eta elkarte**, besteak beste, talde feministek eta emakume elkarteek, jendarte-mugimenduek, ikastetxeek, sindikatuak, kirol eta kultura-elkarteak, etab. Horiek guztiek –100 bat lagunek– zuzenean parte hartu zuten aukera-berdintasunaren diagnostikoan eta Plangintzarako proposamenak egiten. Planaren aurkezpen publikoan ere ikusi zen herritarrek gaiarekiko duten interesa, pleno-aretoa jendez gainezka baitzegoen. Horrela, berdintasunaren alde lan egiteko herritarren batzordea osatzeko deia egin genuenean, laster bildu zen jendea lanerako gogoz.

Ordutik urtebete pasa da, hamaika bilera egin ditugu eta elkar ezagutzeaz gainera, talde bezala zer garen eta zer egin nahi dugun definitzera iritsi gara. Baldintzak sortuz eta oinarriak jarritz, **Berdintasun Kontseilua** sortu dugu, bere araudi eta guzti.

Durante el proceso de definición del Consejo hemos ido definiendo qué tipo de Consejo queremos, qué objetivos debe de tener, quién debe conformarlo, cómo vamos a trabajar, etc.



Así, en el propio reglamento elaborado se recoge que:

- *“El Consejo de Igualdad de Errenteria es un órgano de participación ciudadana constituido por el Ayuntamiento, la ciudadanía y los grupos y asociaciones de Errenteria que quieren trabajar a favor de la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres”.*
- *Así como que “El Consejo de Igualdad de Errenteria se responsabilizará de garantizar el desarrollo del Plan Municipal de Igualdad de Mujeres y Hombres 2008-2012, así como de aconsejar al Ayuntamiento en temas relacionados con el fomento de la igualdad de oportunidades”.*

Entre sus objetivos se han recogido los siguientes:

- a) *Crear una red con personas y agentes sociales que deseen trabajar a favor de la igualdad de oportunidades de mujeres y hombres.*
- b) *Promocionar la participación, empoderamiento y protagonismo de las mujeres.*
- c) *Reflexionar sobre los temas relacionados con la igualdad y buscar puntos de acuerdo para el trabajo común.*
- d) *Canalizar el diálogo entre el Ayuntamiento y la ciudadanía.*
- e) *Garantizar el desarrollo del Plan de Igualdad Municipal.*
- f) *Ayudar a canalizar la actividad del Área de Igualdad (realizar propuestas/aportaciones para canalizar su actividad).*
- g) *Promocionar ideas innovadoras para impulsar la igualdad de oportunidades.*
- h) *Promocionar la perspectiva de género en las políticas municipales.*
- i) *Promocionar ciertas actividades a nivel municipal en favor de la igualdad de oportunidades.*

El Consejo de Igualdad se constituye, por tanto, como un ente ambicioso, con dos claros ámbitos donde incidir: el ámbito público, donde se quiere que las políticas públicas de nuestro municipio tengan un claro perfil igualitario, pero también en el propio ámbito del Consejo, de quienes participemos en él, como ámbito de conocimiento y autoconocimiento, de relación social, de trabajo en red, de lugar de crecimiento y empoderamiento.

Kontseilua osatzeko eta definitzeko prozesuan norbanakoek zein elkarteek hartu dute parte eta horixe izan da, hain zuzen ere, prozesuak izan duen alderdirik interesgarrienetako bat: herriko norbanako eta elkarteak gai honen inguruan elkarlanean ikustea. Egia da guztiak ez direla berdin inplikatu; batzuen parte-hartzea une zehatzetan izan da; beste batzuen, berriz, iraunkorragoa. Edozein kasutan, parte hartu duten guztien ekarpena garrantzitsua izan da, eta, beraz, ez ditugu aipatu gabe utzi nahi:

- *Elkarte feministak: Amalatz, Bilgune Feminista eta Garaipen.*
- *Auzoetako emakume-elkarteetako emakumeak.*
- *Osasunarekin eta zaintzarekin lotutakoak: Gurutze Gorria eta Ekintza Dasalud.*
- *Hezkuntzako eragileak: Koldo Mitxelena Guraso Elkarte eta Telleriko Guraso Elkarte.*
- *Alberdi politikoak: PSE-EE, PNV-EAJ eta ANV-EAE.*
- *Bestelako elkarteak: Bakearen Aldeko Taldea.*

Han sido varios los grupos y asociaciones que han participado en el proceso de creación del Consejo, además de las personas que han participado a título individual:

- *Asociaciones feministas: Amalatz, Bilgune Feminista y Garaipen.*
- *Mujeres de los grupos de mujeres de los barrios.*
- *Asociaciones del área de la salud y el cuidado: Cruz Roja y Ekintza Dasalud.*
- *Agentes de educación: Asociación de madres y padres de Koldo Mitxelena y Telleri.*
- *Partidos políticos: PSE-EE, PNV-EAJ y ANV-EAE.*
- *Otras asociaciones: Bakearen Aldeko Taldea.*

Puestas las bases para el trabajo en común, ahora solamente nos queda echar a andar y ponernos manos a la obra. Y quien quiera acompañarnos en ese camino, no tiene más que sumarse al Consejo.